

2015
**San Pedro
San Martzial**
Jaiak

29
EKAINA
Astelehena

⌚ **8:00**

Hainbat auzotan, ohiko **SAN PEDRO EGUNEKO DIANA**, "Irun Hiria" Musika Bandaren eskutik.

⌚ **8:00**

DIANA hainbat auzotan Txingudiko Dultzaineroen eskutik.

⌚ **9:30**

Colon ibilbidetik irtengo da **IRUNGO XCIV. SAN PEDRO SARI NAGUSIA - XXI. KLASIKA**, Elite kategoria eta Sub-23 txirindularitza itzulia. Colon ibilbidea iristeko gutxi gorabeherako ordua: 12:30ak. Antolatzailea: Irungo Txirindulari Elkarte.

⌚ **10:30**

San Juan plazatik **UDALBATZA**ri jarraituz egingo da irteera Junkaleko Andre Mariaren Elizaraino, Txistularien Udal Bandak, "Irun hiria" Musika bandak eta Irungo Atseginako erraldoiek lagunduta.

⌚ **11:00**

Meza Nagusia, Junkaleko Andre Mariaren Parrokia Elizan. Bertan izango da Udalbatza.

Eskaintzan, Parrokiko Abesbatzak, hiriko beste abesbatza batzuetako kideek lagunduta, Eslavaren **"TU ES PETRUS"** abestuko du.

⌚ **12:00**

Mezaren ondoren, Junkaleko plazatzon, **AURRESKUA** dantzatuko du **UDALBATZAK**.

⌚ **12:30**

San Juan plazako arkupeetan, **SAN PEDRO EGUNEKO OHIKO KONTZERTUA**, "Irun hiria" Musika Bandaren eskutik.

⌚ **21:00**

Txanaleta plazatik, **KALEJIRA**. Ibilbidea: Colon Ibilbidea, Foruen Karrika, kale Nagusia igaro eta San Juan plazaren inguruan amaituko dute. "Irun hiria" Musika Bandak eta Los Tranquilos fanfarreak hartuko dute parte.

⌚ **21:30**

LOS TRANQUILOS fanfarrea irtengo da eta hiriko hainbat kaletan ibiliko da.



**JAIETAKO
EGITARAUA**



⌚ **22:00**

LASTARGIEN EKINTZAREN OROITZAPEN EKITALDIA.

Gipuzkoa hiribideko anbulatoriotik irtengo da. Ibilbidea: Artaleku, karrika

Nagusia, San Juan, San Martzial, Sargia, Larretxipi, Ermita, Arbesko Errota eta Artiako zubia. Antolatzailea: Pagoki Gazte Elkarte.

